



Txirindulari gazteek herriko kaleak hartu dituzte.- 2001. urteko apirilean lehiatu zen Euskal Herriko itzuliaz geroztik ez zuen Lasarte-Oriak txirindularitza proba batez gozatzeko aukerarik izan. Duela hamabi urte Lekunberrin hasi eta herrian amaitu zen Stefano Garzelli irabazi zuen 100km-ko etapa eta hurrengo egunean erabaki zen itzulia Raimondas Rumsasen alde, herriko karrikak zeharkatu zituen erlojupeko teknikoan kronoa txikitu ostean. Oraingo honetan ez dira txirindulari profesionalak aritu pedalei eragiten, Donostialdetik etorritako alebin eta infantil mailako gaztetxoak baizik, ilusioz beterik, euren senide eta lagunak aurrean hortzak estutu eta esprintatzen ikusi ditugu kilometro pasatxo zuen zirkuituan. Alebinek lau itzuli eman behar izan dizkiote barrutiari, infantilek berriz hamar. Tartearen ziren Buruntzapzi Txirindulari Eskolako kideak, emaitza bikainak eskuratuz gainera. Alebin mailan Asier Pozok bigarren postua eskuratu du eta infantil mailan berriz Luken Carbayeda nagusitu da (argazkian berde argiz).Hauetz gain, Mattin Baztarrika, Iraitz Illaramendi, Manex Altuna, Xabier Elozegi, Imanol Iribar, Oier Larrea, Gaizka Bujanda eta Aaron Anzizar aritu dira lehian. Proba antolatzeaz arduratu diren Bazpi Tx. Eskolako kideek egunaren balorazio positiboa egin zuten, "hurrengo urteetarako hainbat gauza hobetu daitezkeen arren". Txirindularitzak bisita egin dio aspaldiko partez herriari, eta geratzeko izan dadila!

3 PARTE-HARTZEA

Kale garbiketa eta Agenda 21 herritarren esku

Batez ere txakurren jabeek egiten zaie deia herrian dauden berdeguneetan aurkitzen diren txakur kakek herritarren artean arduratzen duen gaia delako. Bilera asteazkenean egingo da. Bestalde, asteartean Agenda 21eko Ekintza Planaren oinarria osatu nahi da herritarrek.

5 SEMBLANTE

Rocioko Amaren omenezko erromeria koloretsua

Eguraldi ona lagun, XX. erromeria ospatu du Semblante Andaluzek. Larrosa, soineko eta sevillana festa alai izan dute asteburuan. Festa nagusia Atsobakar auzoan izan bada ere, herrira zabaldu da jai, meza rocieroa Zumaburun eta prozesioa herriko kaleetan barrena egin baitute.



6 IGERIKETA

XXIV. Lasarte-Oria igeriketa saria larunbatean

Lasarte-Oriako XXIV. Saria egin da asteburuan Udala kiroldagiko igerilekuan. Buruntzaldea IKT taldeaz gain, aurtengoan Hernani KE, Zarautz Balea, Tolosaldea IKT eta Usurbil izan dira lehian. Guztiak maila polita eman dute eta jende asko hurbildu da proba ikustera.

ETXEZARRETA

HARATEGIA



1963tik ... 2013ra
50 urte elkarrekin
Mila esker

Hipodromo etorbidea 2 • Tel.: 943 361379
LASARTE-ORIA



Adituak dio



Oihan Agirretxe
Ikaslea

Badatuz!

Azken egunetan aspaldi ikusi ez genuen lagun bat agertu zaigu Lasarte-Orian, eguzkia. Eta hau udara datorren adierazle da, udara eta baita Euskal Herriko herri desberdinetako festak ere.

Ikasturtean zehar bai ikasketetan eta baita lanean ere (lan egiteko suerte hori izan dutenek behintzat) jo eta su ibili ondoren iritsi zaigu disfrutatzeako ordura.

Badatuz jaiak, badatuz han eta hemengo txosnetan botako ditugun parranda itzelak, badatuz jende berria ezagutzeko aukerak, ligatzeakoak, musikarekin disfrutatzeakoak, herri bazkariak, irriak, algarak, eta baita resaka egunak ere.

Baina festa guztiak ez dira berberak, eta herri ugariak jaiak ikusi ondoren, parranda egiteko eredu desberdinak ikus ditzakegu. Ematen du ohitu egin garelako letra izugarri matxistak dituzten abestiak dantzatzera, jai eta desfasea bat datoztela onartzera, eraso sexistak ikustera... eta hau onartezina da.

Beraz saia gaitzen guztion artean beste festa eredu baten alde egiten.

Festa euskaldun, herrikoia eta parte hartzaileak bultzatu eta eraikitzen, aurtun gurekin parranda egin ezin duten preso eta iheslariak ahalik eta azkarren gurera ekartzen, eta honela guztiok batera Euskal Herriko jaiak ahalik eta gehien disfrutatzen!

Motorrak berotzen...

Uda iristear da gezurra dirudien arren, eta bai uda garaian batez ere herriko eta auzoetako jaiak nagusitzen dira. Gurean Zabaletako festak euripean pasa ditugu eta dagoeneko ate joka dira San Pedroak. Udalak bere egitaraua aurkeztu zuen ekainaren 7an eta aurreko astean berriz, Sorgin Jaikoek egin zuten gauza bera. Ohi bezala, hamaika ekintza izango dira festaz nahi beste gozatzeko.

Lasarte-Oriako festekin batera ordea, Usurbilgo Santixelak izango dira aurtenean, Hernaniko San Joanen jarraian etorriko dira biak. Ondoren, San Ferminak eta salto batean, hiriburuetako Aste Nagusi guztiak bata bestearen atzetik. Orain hasita eta irailera bitartean, Euskal Herriari "bira"

egingo diote lagun koadrila askok festaz-festa, txosnaz-txosnaz...

Hauetan ondo pasa eta jende berria ezagutzeko aukera izango dute, ligatzeko, Agirretxek esaten duen moduan, eta askorentzat erresaka egun latzak ere izango dira tartean. Helburua konpainia onean, lagunekin, festaz ahalik eta gehien gozatzeko aukera izatea da baina lelo hark esaten zuen moduan, "pasatu gabe". Eta uda honetan ez daitezela gure herrietako festetan emakumeen aurkako erasorik gertatu.

Hasi ba motorrak berotzen, blusak armairutik atera, garbitu... sanjoanek, santixelak eta sanpedroak hemen ditugu eta. Goza ditzagun festak!

Hitz eta pitz

Ba al daukazu gogorik sanpedroetarako?



Julen, Dani eta Beñat

Jaiak iristeko gogo handiarekin gaude, urte osoan itxaroten egoten gara eta. Aurtun, gainera, kontzertu onak daude. Dena den, lehenengo azterketak gaintitu behar dira eta, gero, ea gurasoak ondo portatzen diren. Bukatzen ari gara jada. Gero, udan, Ttakune-kin kanpaldietara joango gara eta, ahal bada, beste herri batzuetako festetara ere bai.



Julio Merino

Aurtun ez nago hemen, baina, bestela, nola ez eduki gogorik herriko festetarako? Nola ez gustatu hemengo festak? Saltsa zegoen tokian ibiltzen nintzen beti ni. Behin ume txikiarekin nintzela etxaleroa lehertu zitzaigun ondoan. Hura zalaparta. Ez naiz egongo, baina egitaraua bidaliko didate. Hemen bizi izan naiz 62 urtean, Gipuzkoako herri onena da, berria, gaztea...



Naike Zumeta

Gogoarekin nago, bai. Lanak bukatu ditut, eta, zain, ea udako giroa ere etortzen den. Aurtun ia konturatu gabe iritsi dira festak, baina ari gara zer egin planeatzen... beste urtean prestatzen ari nintzen. Parrandazalea naiz, disfrutatzeako desatzen egoten nintzen. Parrandazalea naiz, disfrutatzeako desatzen egoten nintzen. Parrandazalea naiz, disfrutatzeako desatzen egoten nintzen. Bestela, urtean zehar gutxiago, eta udan ere ez naiz festetara hainbeste joaten. Oporrez gozatu, atsedean hartu...



Joxan Rebe

Taberna daukat Zumaburuan eta lana egin beharko dut. Ez asko, zoritxarrez, dena hemen erdigunean izaten da eta. Egunen batean etorriko naiz poteren bat hartzera, baina ez dira festa izugarriak ere. Garai batean hobeak ziren. Gainera, orain krisiarekin, gauza gutxiago egiten dira, gutxiago gastatzen da, hori da dagona, orain horrela bizitzea tokatu zaigu. Ez dago besterik.

Iruditan

Jaietako erregina



60. hamarkadan Lasarteko festetako erregina izendatzen zen. Tomas Fernandezzen bilduma

Egun jai ereduaren inguruan asko hausnartu eta mintzatzen da. Ohiturak mantendu edota berreskuratzeko ahalginiaren alde egiten da askotan eta bilaketa horretan neurri handiagoan edo txikiagoan, errotutak egon direnak aurki daitezke. San Pedroei lotuta adibidez garai batean Lasarteko festetan erregina ere izendatzen zen, honek lisar ugari sortzen zituen hautagaien aldeko taldeen artean baina hala ere, urteetan eutsi zitzaion izendapen honi zeukan harrera onagatik. Erregina danborradaren aurrean joaten zen, txirindularitza proban lore sortak eta sariak banatzen zituen besteak beste.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE ORIA
UDALA

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakin Kultur Elkarte

Geltoki kalea 4

20160 Lasarte-Oria

943 366 858/943 371 448

G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93

ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7800

txintxarri

Erredakzioa:

Nerea Eizaguirre, Jon Altuna I.,

Maider Azumendi, Jon Altuna E.

txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Artola

publizitatea@ttakin.com

administrazioa@ttakin.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoz, Gorka Lasa,

Ane Labaka, Mailu Arruti,

Asier Odriozola, Jone M. Hernandez, Oihana Salazar,

Pako Aizpitarte, Edu Galardi

Informazioa:

Xabier Arnoz

UDALA

Parte hartzea landuz

Herritarren iritziak jasotzeko bi bilera egingo ditu Udalak



Herriko parkeetako garbiketaz mintzatu nahi du Udalak txakurren jabe eta herritar ororekin.

Nerea Sanchez eta Alaitz Mendizabal zinegotziek parkeak garbi mantentzeko egingo den bilera aurkeztu zuten ostiralean. Batez ere, txakurren jabeek egiten zaie deia, herrian dauden berdeguneetan aurkitzen diren txakur kakek bereziki herritarren artean arduratzen duen gaia delako. Bilera asteazkenean egingo da 18:30ean udal euskaltegiko bilera aretoan. Bestalde, asteartean Lasarte-Oriako Agenda 21eko Ekintza Planaren oinarria osatuko duten lehentasuneko eremuak denen artean osatzeko bilera irekiera ere deitu dute Manuel Lekuonan.

Maider AZURMENDI

2012. urtean Lasarte-Oriako Udalak "Pauso pauso Auzoz auzo" ekimena jarri zuen martxan eta udalerriko auzo guztietan bilerak egin ziren. "Bilera hauetan proposamen ugari jaso zituen Udalak eta pixkanaka zerrenda luze honetako ekarpenak gauzatzen ari gara" azpimarratu du Parte-Hartze zinegotziak Alaitz Mendizabalek.

Hauen artean puntu oso garrantzitsu bat parke eta kaleen garbiketari zegokiona da "eta zehazki, txakurren kakek sortzen dituzten arazoena". Gaia auzo guztietan atera zenez, herritarrek hau konpontzeari lehentasuna eman zioten.

Nerea Sanchezek azaldu moduan, "egun dugun ordonantzak, gai honen inguruko zenbait aspektu arautzen baditu ere garbi dago zaharkitua geratu dela. Beraz, beharrezkoa da Animalien jabetzaren legedi berrira egokitzea eta herritarrekin gaierain inguruko nondik norakoak partekatu ondoren ekarpenak bertan txertatzea".

Sanchezen ustetan egun pertsonak eta txakurrek ez dituzte espazioak behar den

bezala elkarbanatzen arazo hau tarteko, eta aurrerantzean helburu horretara iritsi nahi bada lan handia dagoela aurretik.

Txakurren gorotzek sortzen dituzten arazoei bide emateko Udalaren datu baseetan dauden txakur jabe guztien etxeetara gonbite gutuna bidali zaie. "Baina, noski, txakurrik izan ez arren, arazo honek jende asko arduratzen duenez eta herritar guztien iritzi garrantzitsua denez, ekimen berri honetan, interesa duen orori hurrengo astean Udaletxeak deitzen duen bilera gonbita luzatzen diogu".

Bilera ekainaren 19an arratsaldeko 18:30etan izango da udal euskaltegiko bilera aretoan.

Parte hartze foroa

Bestalde, beste ekintza batean ere parte hartu ahal izango dute herritarrek.

Lasarte-Oriako Udalak, Tokiko Agenda 21eko prozesuaren eremuan, 2006. urtean bere Ekintza Plana onartu zuen. Orduetik, iraunkortasunaren aldeko pausoak ematen lagundu du eta arlo ezberdinak jorratu ditu udalak, mugikortasuna, energia,

hondakinak, lurralde antolamendua edo garapen ekonomikoa, besteak beste.

Lehenengo plan hau amaitutzat jo da eta orain, plan berri bat definitzeko lehen pausoak ematen hasi dela jakitera eman dute udal ordezkariak.

"Horrela, abiapuntu gisa, Lasarte-Oriako gaurko egoera zein den jasoko duen Diagnostikoa osatzen ari gara". Diagnostikoa osatzeko, lan teknikoaz gain, Auzoz-auzo proiektuaren testuinguruan egin diren ekarpenak ere kontutan hartu dira.

Hala ere, azterketa osatzen bukatu aurretik, "ezin bestekoa iruditzen zaigu bertan jaso diren emaitzak herritarrei aurkeztea".

Gainera diagnostikoa oinarrituz, etorkizuneko Lasarte-Oriako Agenda 21eko Ekintza Planaren oinarria osatuko duten lehentasuneko eremuak identifikatu nahi dira.

Hau dela eta, ekainaren 18an asteartean, 19:00etan, Kultur Etxean ospatuko den foroan parte hartzera gonbidatzen dituzte herritarrek.

Landuko diren gaiak: Lasarte-Oriako Tokiko Agenda 21-eko testuinguru eta aurrerakari azalpen laburra, diagnostikoa osatzeko jarraitu diren pausuen aurkezpena, diagnostikoaren gakoak aurkeztu eta ekarpenak jaso eta etorkizunari begira identifikatu diren Udalerrirako lehentasuneko gaiak aurkeztu eta ekarpenak jaso.

Lasarte-Oriako Udalak herritarrek bileratan parte hartzera animatzen ditu, "denen artean nahi dugun herria egiteko".

HITZALDIA

Harrera elkartearen aurkezpena

Preso ohien arazoei aurre egiteko Harrera elkarteak sortu da. "Etxera itzuli ostean, errealitatea ametsen gainetik nagusitzen zaie preso eta errefuxiatu askori. Batzuetan ikasketarik gabe, gehienetan kotizaziorik gabe, ia beti lanik izan gabe, egunerokoari aurre egin behar diote. Arazo zabala eta larria da, aspaldikoa, baina horri heldu dio Harrera elkarte berriak aro berri honetan".

Elkartearen lana aurkeztu eta ezagutzera emateko hitzaldia egingo da Villa Mirentxun asteazkenean, ekainak 19, 19:30ean. Hitzlari arituko dira Juan Karlos Ioldi eta Jon Ugarte.

IKASTAROA

AEK-ko ikasleak ederki pintxoak prestatzen

Aiala sukaldaritza eskolan aritzen den Lordi Etxeondo sukaldariarekin pintxo ikastaroa izan zuten ostegunean Munterri-AEK-ko ikasleek.

Goiz eta arratsaldeko saioetan Lordiren laguntzarekin hiru errezeta ikasi zituzten. Lehenengo oliba beltz magdalenak egiten ikasi zuten, ondoren foie gras mi-cuit ogi txigortuan sagar konpotarekin eta bukatzeko salmorejoa prestatu zuten.



MUSIKA

Ikasturte amaierako emanaldiak

Ikasturtea bukatzeaz dela eta, Udala Musika Eskolako ikasle eta irakasleek ikasturteari amaiera emateko bi kontzertu prestatu dituzte. Lehenengoa, ekainak 18, asteartean izango da Manuel Lekuonan 19:00etan.

Kontzertu hasieran, txoko 3 eta txoko 4 ikasle taldeen ikuskizunaz gozatzeko aukera izango da. Ondoren, tronpetak, trikitixa, pianoa, biolina, gitarra, flauta eta abesbatza ikusi eta entzuteko aukera paregabea izango da.

Bigarren kontzertua, ekainaren 19an, asteazkenean, taldeei zuzendutako izango da. Musika tresna berdin edo desberdinez osatutako talde desberdinak hain zuzen. Ondoren, ikasturte honetan maila gaitutako diploma banaketa izango da. Kontzertua bukatzeko, Manuel Lekuona Kultur-etxeko dantza ikasleen ikuskizunaz gozatzeko aukera izango da.

BILERA

Sorturen batzarra asteartean

Ekainaren 18an, asteartean arratsaldeko 19:30etan Lasarte-Oriako Sortuk herri batzarra egingo du Xirimiri elkartearen. Lantzeko gaia Lokarri, Bake Bidea eta Nazioarteko adituek gatazkaren konponbiderako emandako gomendioen azalpena izango da.

Zuloren estreinaldia.-

Ostiralean ireki zituen atea Zulo taberna eraberritua.

Asteburuko Gaueko Itzalak, Hotzikara, DJ Gatxet, Trifulca Session, Duo Kie eta Rushblaka taldeen kontzertuek argi utzi zuten bizitasun handiko taberna jai dela. Hemendik aurrera hainbat ekintza kultural egiteko asmoa dute.



Montse Latorre eta Kristina Perez Abreu Alboka Abesbatzaren zuzendariak

“Haize berria lagungarria da”

■ 25 urte bete ditu ekainean Alboka “herriko abesbatzak”, eta beste 25 egiteko prest da
 ■ Ekainaren 22an 1988ko lehen kontzertua gogoratuko du San Pedro Parrokian bertan

25. urteurrena ospatzen ari den Alboka Abesbatzako Montse Latorre eta Kristina Perez Abreu zuzendariak beste 25 egiteko prest dira. San Pedro elizan estreinatu zen Alboka 1988.ean, eta, ekainaren 22an, lehen pausuak oroitu dituzte bertan emango duten kontzertuan. Larunbatean, 25. urteotan Alboka, Zandategi eta Alboka-Txiki abesbatzetan aritu diren herri-tar guztiak gonbidatuta daude, denek batera, bi abesti kantatzeko.

Jon ALTUNA IZA

Daniel Adrian izan zen Alboka Abesbatzaren lehen zuzendaria. Bere agindupean eman zuen lehen kontzertua 1988.eko ekainaren 24an San Pedro Parrokian. Ordurako abesbatzan zen Kristina Perez Abreuk ordezkatu zuen gero, 1997.ean, eta 2008.az geroztik bi zuzendari ditu abesbatzak, Montse Latorre eta aipatutako Kristina Perez Abreu. Biek eman digute 25 urteko ibilbidearen berri.

1988tik 25 urte bete dituzue, zer nabarmenduko zenukete urte hauetan egindako bidean?

Kristina: Herriko abesbatza dela, abestea gustatzen zaion herriko edozein pertsona etorri daiteke guregana.

Montse: Edozeinek probatu dezake, nahiz eta musikaz asko ez jakin.

Kristina: Eta, behin probatuta, gero naturaltasun osoarekin erabaki: gustatzen bazaio, jarraitu; ez bazaio gustatzen, eta beste zerbaiteko espero bazuen, orduan ere oso ondo.

25 urte atzera egingo dugu. Nolatan sortu zen Alboka?

Kristina: Lehendabizi gizonzkoen abesbatza sortu zuten Landaberri eskolan, kantatzeko gogoia zuten gizon batzuek. Handik urte batzuetara, 1987.ean, Felipe Lizarragak zuzendaritza utzi eta Daniel Adrian-ek hartu zuenean, honek proposatu zuen abesbatza misto bihurtzea. Hori izan zen sorrera.

Urte hartako azaroan ehun bat lagun bildu ginen Tedoso zineman; gero, froga zorrotzak egin zizkiguten, noski, galbaha pasa eta aukeraketa egiteko, baina, hala ere, lehenengo kontzertuan lagun pila bat ginen. Eliza bete egin genuen. Horrela sortu zen abesbatza, abesteko gogoia zuten gizon haiei esker.

Beti egon al da hasieran hainbesteko zaletasuna?

Montse: Bai, batez ere emaku-

meen artean. Gizonezkoak falta ditugu. Orain bat batean etorri dira hiruzpalau berri eta nabaritzen dugu.

Kristina: Partaideak taldearen dinamikan sartzen dira eta haize freskoa, haize berri hori, oso lagungarria izaten da taldearentzat, gainera.

Ondo pasatzeko helburuarekin elkartzen den talde amateurra da Alboka; Zer da erakargarriena edo pizgarria kideentzat?

Montse: Nik esango nuke kontzertuak direla, berez, eta kanpora egiten ditugun bidaiak. Nori ez zaio gustatzen bidaiatzea?

Portugalera, Norvegiara, Poloniarra... Egin dituzue irteera batzuek kanpora, ezta?

Kristina: Italian ere egon ginen, eta Espainiako toki askotan. Gehienetan bi talderen arteko trukeak dira, aurrekontu handia behar izaten da eta. Gu bisitan joaten garenean beraiek asko jartzen dute.

Gaur egun ez dakit nola konponduko ginatkeen, baina garai onak eduki ditugu koruan.

Bereziki, bidaiaren bat gogoratzuten al duzue?

Montse: Denek daukate bere xarma.

Kristina: Polonian egon ginean oso gaztea nintzen; horrelako lehenengo bidai nuen. Autobusean lo egiten genuen, oso polita izan zen.

Montse: Mallorcara egin genuen gure lehen hegaldia eta oroitzapen ona dugu, asko gogoratzen naiz Mallorkaz. Bertako lagun pila bat egin genituen.

Kristina: Norvegiakoa ere sekulako aukera izan zen.

Errepertorioa aldakorra izan da 25 urte hauetan. Ba al dauka, dena den, Albokak berezitasunen bat?

Kristina: Gu hemengo musika lantzen saiatzen gara. Hori bai, atek irekitzen dizkiogu, gero,

polifonia europar edota amerikarrari, beti ere, hemengoak galdu gabe. Nolabait esateko, hemengo abestiak beti tartekatzen ditugu besteen artean.

Mantentzen al du hasiera haie-tatik abestiren bat?

Montse: Bai, afarrietan, batez ere.

Kristina: Adibidez, ekainaren 22ko kontzertuan nahi duten partaide guztiak eskainiko ditugun bi abesti horiek, “Kantuz” eta “Ilunabarra”, hasiera hasierakoak dira.

Zein hizkuntzatan kantatzen duzue?

Montse: Filipinok ere kantatu dugu. Partaide berriak izututa daude.

Kristina: Hizkuntza ugari erabili ditugu, euskara, gaztelera, ingeleza, alemana filipinarra, norvegiarra, suomiera... swahiliz baten bat. Ez dugu eragozpenik jartzen hizkuntzarenatik.

Beste hizkuntza batean kantatzek badu zailtasunik, ezta?

Kristina: Baina saiatzen gara ahalik eta gehiena jatorrizko ahoskerari eusten.

Montse: Itzulpenik ez dugu egiten, jatorrizkoa abesten dugu.

Euskarazko abesti asko kantatzen al dituzue?

Kristina: Bai, maiatzaren 11ko kontzertuan abesti denak euskaldunak ziren. Ekainaren 22koan, ordea, denetarik egongo da.

Montse: Ez da komeni, adibidez, ingelesez gehiegi egitea, ikuslearentzat nekagarria izaten da eta. Gehiago kostatzen zaie.

Herriko ekitaldi nagusietan parte hartzeaz gain, herriari irekitako abesbatza da...

Kristina: Bai, interesa daukatena etor daitezela, lasai, eta beldurrik gabe, gainera. Azken finean gu horretarako gaude.

Montse: Saiatzeko, behintzat, ez dezatela beldurrik izan.

Kristina: Gero, denborak eta gogoak jarriko dituzte mugak. Bestalde, herrian gauza askotan parte hartzen dugula esan dugu: mezan, Azkorteako ermitan, Maratoian, Santa Zezilia egunean... eta beste hainbat ekitalditan. Azken finean herriak behar dituen ekintza guztiak.

Zero Settek ere 25 urte bete zituen duela gutxi...

Montse: Azken finean, denok berdintsu ari gara. Erketz dantza taldea da zaharragoa. 50 urtetara bidea hartu du.

Zero Sette eta Erketz aipatu ditugu. Ikuskizun ederra muntatu zenuten elkarrekin...

Kristina: Izugarria da herrian bertan dantza taldea, akordeoi orkestra eta abesbatza izatea.

Montse: Eta denak elkarrekin lanean ikustea hunkigarria. Gainera denak herrikoak izanda, Lasarte-Oriak oso harro egon beharko luke. Dena den, bai guk eta bai beste taldeek beharrezkoa dugu eraberritzea. Hori, beti. Harro gaude, baina, benetan, hain harro baldin bagaude, kontzientziatu eta parte hartu behar dugu.

Beste 25 urte betetzeko prest?

Kristina: Bai dudarik gabe.

Montse: Albokak, talde bezala, espero dut baietz. Personalki ez dakit.

Kristina: Bai, indarririk falta ez bazaigu. Beti ere, herri-tarrek parte hartzen baldin badute, Alboka hor dago eta hor egongo da.

Orain ospatzea tokatzen da...

Kristina: Bai, hala ere, horrelako urteurrenek erretzen dute. Kanpotik oso polita ikusten da, baina, kontzertuetarako errepertorioak prestatu behar dira: egun baterako bat, hurrengo hilabeterako beste bat guztiz ezberdina... Atzean lan handia dago.

Montse: Entsegu gehiago egiten dira, hauek luzatzen dira, grabaketa egin behar da... Lan handia da.

Kristina: Oso polita da eta emaitzak ederrak dira, baina zuzendariak eta, batez ere, partaideek lan handia egiten dute. Topera gabilta denak. Lehen ere horrela izango zela pentsatzen dut.



Montse Latorre eta Kristina Perez Abreu, Albokak 25. urteurrena ospatzeko sortu duen irudiarekin.



Jendetza bildu zen meza rocieroan, kantatu eta dantzatu ere egin zuten.



Rocioko Ama Birjina parrokiatik atera, hainbat kantu eskaini eta prozesioa hasi zuten Atsobakar auzoraino, geldidunak eginez.

Rocioko erromeria koloretsua

Eguraldi ona lagun, larrosa, soineko eta sevillana festa alaia izan da asteburuan, Atsobakar auzoan

XX. erromeria ospatu du Semblante Andaluz elkarteak asteburuan. Festa nagusia Atsobakar auzoaren inguruan izan bada ere, herrira ere zabaldu da jaialdia, meza rociero Zumaburuan eta prozesioa herriko kaleetan barrena egin baitute. Ez dira bakarrik egon gainera, Irungo Embrujo, Errenteriako Concha Rociera eta Aljarafe, Andoaingo Triana eta Arrasateko Al-Andalus elkarteak bisitan izan dituzte.

Larunbatean eman zitzaion hasiera erromeriarri, Jose Perez Acosta Semblante Andaluzeko lehendakariak festa zoriontsuak igarotzeko desiratu zien herritarrei. Handik aurrera, bi egunetan ez zuen etenik izan herriko andaluziarren jaiak.

Goizean giroa epel samar bazegoen ere, arratsaldean jendetza bildu zen Merche Montes Eskelariaren eta Andaluziako Etxeetako abesbatzen emanaldiak ikusteko. Gauean Amigos del Sur taldearekin gozatzeko aukera izan zen.

Igandea, egun handia

Semblante Andaluzek antola-

tutako festaren egun handia atzokoa izan zen.

11:30etan meza rociero ospatu zuten Arantzazuko Amaren parrokiaren, bertan ez zen dantza, kantu eta kolorearik falta izan. Mezan gogoratu zuten Rocioko Ama Birjinari deozioa ez zaiola egun bakarrean soilik erakutsi behar, fedea "egunerokoan" erakutsi beharra dagoela.

Ostean atera zuten Rocioko birjina elizatik eta aurreko urtean ez bezala, orain honetan eguraldi ona izan zuten lagun. Kanpoan Semblante Rocieroko laguneren koru eta gitarra akordeen artean hiru kantu eskaini ziz-

kioten Ama Birjinari kofradeek bizkarrean hartu aurretik.

Tipi-tapa Atsobakar auzoraino iritsi ziren eta bertan zain zeuzkaten herriko alderdietako agintariak agur ofiziala eta fino ardoarekin brindisa egiteko.

Paella jana egin zuten 14:00ak aldera eta belardietan edo karpentzetan bilduta, jendea giro ezinhobean aritu zen tertulian herriko zein inguruko herrietako dantza taldeen ikuskizunak hasi arte. Herriko Azabache, Zambra, Gitanillos del Alba taldeek "soleá", "alegría", "tango" eta "runba" ederrak eskaini zituzten Atsobakarreko parkean ikurrina eta andaluziar banderaz apainduta zegoen eskenatokian.

Salve Rociera delakoarekin, Ama Birjinari azken agurrak eman zituen emozio artean, hurrengo urtera arte itxaron beharko dute orain.



Musika eta sevillanak nonahi ikusi ahal izan dira asteburu osoan zehar.



Argazki galeria eta bideoak txintxarri.info webgunean



Herritar batzuk dantzan, besteak sukaldetan, musika jotz, abesten... Eguraldi zoragarriarekin, denek gozatu zuten Rocioko erromeriaz.

ADURIZ DE LASARTE S.A

Odollkia- Solomo ontzutua Solomoa baratxuriitan

Etxeko txorizoa

Tripakiak- Saltxitxak

Txistorra

Basurde burua

Baserri pateak



BERTAKO FABRIKAZIOA

Loidi Barren kalea 3 • 20160 Lasarte-Oria

Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451

LABURRAK.-

Ostadar SKT-ko saskibaloitzaletaren entrenamenduak

Ostadar SKT-k jakitera eman duenez, hurrengo denboraldiako nesken saskibaloitzaletaren osatzeko entrenamenduak egingo ditu ekainaren 19an eta 21ean, 15:00etatik aurrera Udal kiroldegian.

1996-99 urteetan jaio eta saskibaloia gustuko duten herriko neska animatzen ditu elkarteak entrenamenduetan parte hartzera.

LOKEko atleta gazteak ederki BAT-ekin

LOKEko Gaizka Ormazabal, Itoitz Rodriguez, Maider Rekondo eta Maria Eugik Bidasoa Atletiko taldearekin lehiatu ziren ekainaren 8an Espainiako 1. mailako Klubaren arteko txapelketako finalean.

Mutilek Burgosen izan zuten lehia eta zazpigarren postua eskuratu zuten. Gaizka Ormazabalek gainera, 400 m. hesi-lasterketan hirugarren postua egin zuen eta bere urteko marka egin zuen.

Nesken kasuan, Maria Eugik eta Ane Galardik hobetu zituzten haien markak.

Maria 200 m. lasterketan laugarren izan zen, 26,05 sg., eta Ane jauzi hirukoitzean seigarren izan zen. Gainera, 11,13 markarekin jubenil mailako Espainiako txapelketarako gutxieneko marka egin zuen eta Durangon izango da hurrengo asteburuan lehiatzen.

IGERIKETA.-

XXIV. Lasarte-Oria Saria

Buruntzaldea IKTKo igerilariek etxeko berotasuna sentitu dute asteburuan

Lasarte-Oriako XXIV. Saria egin da asteburuan Udal kiroldegiko igerilekuan. Buruntzaldea IKT taldeaz gain, aurtengoan Hernani KE, Zarautz Balea, Tolosaldea IKT eta Usurbil ere izan dira lehiak. Guztiek maila polita eman dute eta jende asko hurbildu da proba ezberdinak ikustera.

TXINTXARRI

La mende laurdena bete du Lasarte-Oria Sariak. Urte guzti hauetan herrian kalitate handiko igerilari trebatuak azaldu dira eta larunbateko lehiaketan ikusitakoarekin, aurrerantzean ere herriak harrobi ona duela argi geratu zen.

Igerilekuan proba ezberdinak ikusi ahal izan ziren. Lehenik eta behin txikitxoan txanda izan zen, 2005. urtean jaiotakoek, erreleboen aurretik, lehiaketatik kanpo 25 m. libreko erakustaldia egin zuten. Jakina, lehen zita honen aurrean nerbioak dantzan jarri zitzaizkion bati baino gehiagori eta irteera ustel bat edo beste ikusi zen.

Ostean iritsi zen benjamin,



Igerian hasi aurretik, Buruntzaldea IKTKo igerilariek euren gerra kantua egin zuten, motibazioz gainezka ekiteko.

alabean, infantil, junior eta absolutuen txanda. Hauek ohi bezala denbora politak egin zituzten eta etxeko berotasuna gertutik sentitu zuten besakada bakoitzean.

Txapelketa aurrera eramateko, ohi bezala, herritarren laguntza behar izan dute antolatzaileek bai mikroan speaker lanak eginez, saribaketa prestatu edota igerilarien serieak kronometratzeko, denen artean txapelketa ederra osatu zuten.



Gipuzkoa osotik etorritako igerilariek hartu zuten parte maila ona emanez.

GIMNASTIKA.-



Gimnastika erakustaldia

Kursoari amaiera emateko KLOKEko gimnasia eritmitikoko atalak erakustaldia egin zuten atzo kiroldegian, senide eta lagunaren aurrean.

Bertan, 2012-2013 denboraldian taldean egon diren maila desberdinetako gimnastek hartu zuten parte, jantzi ikusgarriak eta koloretsuak zeramatzatela.

Ikuskizun ederra eskaini

zioten bertaratu zen jendetzari. Hasieran denak batera aritu ziren ariketak egin, aurkezpen gisa. Ondoren, taldea egin zuten lan elementuak maneiatzen edo esku libreekin, gero, bakarkako saioak ere ikusi ziren. Zinta, soka, baloiak, mazak zein uztaiekin eginiko lana urte osoan ikusitakoaren isladak izan zen.

DENBORALDI AMAIERA.-



LOKEren bazkaria.- Lasarte-Oria Kirol Elkarteak bazkaria egin zuen igandean Usurbilgo Aginaga sagardotegian denboraldiari agur esateko. Guztira 77 lagun bildu ziren judo, tenis, atletismo eta gimnastika eritmitikoko sailtako kirolari, entrenatzaile eta senidearen artean. Ohi bezala, bazkaria amaituta iritsi ziren momenturik hunkigarrienak, Gorka Aristegi, Maite Rueda, Xabier Gonzalez, Amaia Andres eta Manuel Moralesek sail bakoitzeko kirolari nabarmenduari saria ematerakoan. Entrenatzaileen arabera, emaitza onak lortzeaz gain, eguneroko lanaren bitartez herrian kirola bultzatzea du xede klubak. Era berean, aurreko LOKE probintzia, autonomia zein estatu mailan izan dituen emaitzak nabarmendu nahi izan dituzte. Bide batez, klubeko lehendakari berria aurkeztu zuten, Amaia Andres atleta ohi olinpikoak Jesus Diezen lekua hartuko du datorren denboralditik aurrera: "Ohorea da niretzat LOKEren buru izatea, kirola pasio bihurtu izan dugu betidanik, eta halaxe jarraituko du klubak, mila esker denoi", esan zuen Andresek, emozionatuta.

Agenda

Asteartea 18 eta asteazkena 19, 19:00etan, Manuel Lekuona kultur-etxean



Musika eta dantza ikasturte amaieran

Udal Musika eskolako lagunek ikasturte amaierako kontzertuak eskainiko dituzte. Asteartean eskolako txikien saioak eta instrumentu desberdinak jotzen dituzten bakarlariak entzuteko aukera izango da; asteazkenean, berriz, taldeak izango dira nagusi eta emanaldiari amaiera emateko, Udal Dantza eskolako lagunen koreografiatuz gozatzeko aukera ere izango da.



Dantza

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Ostirala 21, 20:00etan

Erketz EDT, Erketzeko lagunak eta Erketz-txikik ikasturte amaierako emaldira eskainiko dute.

Erakusketa

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA ETA
JALGI KAFE ANTZOKIA

Ekainean 7tik aurrera

Alboka Abesbatzaren "25. urteurrena" argazki erakusketaz gozatzeko aukera.

Ipuin-kontalariak

ZULO ARETOA

Igandea 23, 12:00etan

Kontu Kantoi ipuin kontalariak haur eta gaztetxoentzat saioa egingo dute.

Bilera

EUSKALTEGIKO ARETOAN

Asteazkena 19, 18:30ean

Lasarte-Oriako Udalak Parkeen garbitari buruzko bilera egingo du herri-tarekin.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Asteartea 18, 19:00etan

Lasarte-Oriako Udalak Agenda 21 ekintza planaren oinarriak garatzeko bilera irekia egingo du.

Lasarte-Oria

Zinea

SORKUNTZA ETA EZTABAIDA ASKERAKO TOPAGUNEA

Asteartea 18, 20:00etan

Zine emanaldia eskainiko da.

Hitzaldia

VILLA MIRENXU

Asteazkena 19, 19:30ean

Harrera elkartearen aurkezpena. Preso ohien arazoei aurre egiteko sortu da. Hizlariak Juan Karlos Ioldi eta Jon Ugarte izango dira.

Musika

ORBELA BELARDENDA

Osteguna 20, 19:30ean

Soul Kitchen taldearen soul, funk doinuak eta cover-ak entzuteko aukera izango da. Kultur Kale Zikloko ekintza da.

ZULO ARETOA

Ostirala 21, 00:00etatik aurrera

Jazz Jop Session bat egingo dute. Ondoren, Budin DJ-aren saioa, black music-a jarriko du.

Larunbata 22, 00:00etan

Mario Maqueda eta Blami DJ-en saioaz gozatzeko aukera.

SAN PEDRO ELIZA

Larunbata 22, 20:00etan

Alboka Abesbatzak bere 25. urteurrena ospatzeko kontzertua eskainiko du. Javi Busto zuzendari eta konposagileak urteurrenerako espreski egindako lana estreinatuko dute. Honetan, Javi Bustoz gain, SuBerri akordeo orkestrak, Xabier Lasa gitarra joleak, Alba Carretero biolin joleak eta Amaia Dorronsoro piano joleak lagunduko diote emanaldian.



Herritarren txokoa

Eskutitza

(B)Elebeltz Sorkuntza eta Eztabaida Askerako Topagunea jaio da

XXI. mendeko lehen hamarkada honek bereak eman dituen honetan, testu-guru sozio-ekonomiko eta beraz ezinbestean politiko oso zehatz batean dena estaltzeko aitzakia ere definitua dutelarik; krisia delakoa.

Ez hain urrun ageri diren gehiegizko lege zen garai haietatik gaurko beharren arora igaro gara bat batean, dena estaltzeko aitzakia ere definitua dutelarik; krisia delakoa.

Krisian gaude bada; krisi sakon, balio eta batez ere jarrera eta ekubide krisi batean. Finean bada aski denbora izabanako asko eta askok aldiari aldiko egunerokoa berdina, aseptikoa, errepikakorra... delako sentimendu hori duela; txikia urtzen ari da handiaren aurrean; jabetza pribatua da jaun eta jabe; herriko merkataritza eta inguruan egin dituzten kontsumo gune handien arteko dikotomiak noren alde egingo duen ikusi besterik ez dago. Herriaren eguneroko ogi zen merkato sarean egun urrea erosten

da, eta azken aldiari telefono mugikorrak ere sartu dira "compro oro" merkatuan.

Bada ordea historiaren armairuan geratu den belaunaldi bat. Belaunaldi hau ez dago adin bereko pertsonaz osatua, ez zaitezte erra; orain arteko historiaren armairuan esekita utzi nahi izan ziren pertxa horiez guztiaz osatuta dago, hagatik edo besteagatik eguneroko bizi duen horren funtsean zerbait gaizki antolatua dagoelako sentsazio duten guzti horien artean; kasualitatez edo kausalitatez orain arteko eskeman baztertuak izan diren horiek; kausalitatez gehiegitan prekariotasunak barnebiltzen dituen horiek; sistemaren arrakala guzti horiek.

Prekariotasuna ageriko egin den garai hauetan, berrerabilaren fenomenoak bere benetako dimentsioa hartu du.

Hainbat pertsonak, Lasarten hondakinez beteta zegoen lantoki bat atondu dugu beroni erabilera herriko bat emateko asmoz. Sorkuntza eta

Eztabaida Askerako Topagunea izango da hemendik aurrera herriak izango duen jardunerako bitarteko berria; akritikotasunari aurre egin eta formakuntzari lehentasuna emango dion espazio bat sortzeko nahiak bultzatzen gaitu pausu hau ematera, bertan era kolektibo eta autonomo batean artikulatzeko aukera izango dugularik, lotsagabe eta duinki. Espazioa librea da jada eta beronen antolakuntza kudeatzeko asanbladak egingo dituguz astelehenero 19:00etan (B)ELEBELTZen bertan.

Gutun honekin herriarekiko proiektuaren lehen komunikazio bat egingo gain bihar asteartez burutuko dugun jardunaren berri eman nahi genuke.

Agnes Vardaren "LES GLANEURS ET LA GLANEUSE" pelikularen emanaldia izango da 20:00etatik aurrera. Filmak berrerabilera aztertzen du fenomeno moduan eta filmaren ostean gure berrerabilera ariketaren inguruko tertulia egingo dugu, nahi duen orok espazioa ezagutzeko aukera izango duelarik.

Azkenik eta aurkezpen honekin amaitzeko esan lekua atontzen dihardugularik hainbat direla detektatzen ari garen beharrak, batez ere azpiegi-

tura mailan, beraz etxean erabiltzen ez eta (B)ELEBELTZen berreabil dezakegun edozer X bazenu eskertuko genizuke gurekin harremanetan jartzea. Elektrotresnak, altzariak, garajea margotu ostean sobratu zitzaizuen margo... topagunean zentzu handia izan dezakete beste leku askotan erabili ere egingo ez liratekeen bitarteko askok.

Hau hasera besterik ez da; antolatuta eta ekiteko garaia da, ez bitan pentsatu eta hurbildu proiektu ezagutu eta elikatuz!

"LEGEA LAPURRETA DEN EINEAN, HERRIAK BERRESKURA BEZA BERA"

(B)ELEBELTZ
Sorkuntza eta Eztabaida Askerako
Topagunea



Monsterville antzerkiak momentu umoretsu ugari utzi zituen, eta ikusleek gozatu egin zuten barre-algaraka.



Gazteek Kreta eta Grezia zaharrek mitologia landu zituzten, ukitu bereziarekin.



Gazteen dantza garaikideko emanaldiak argazki dotoreak utzi zituen.

Argazki galeria eta bideoak txintxarri.info webgunean

Hurrengo urtera arte!

Kukukaren 11. antzerki eta dantza astea amaitu da

Amaitu da Kukukaren 11. Antzerki eta dantza astea. Emozio, kolore, sentimendu eta irribarre artean urte osoan egindako lana herritarrei erakutsi eta gero, hori bai. Ostiralean helduek "Monsterville" antzerkia eskaini zuen eta gazteek dantza garaikideko emanaldia egin zuten. Larunbatean berriz, gazteen taldeak "Minotaurora" obra eskaini eta helduei tokatu zitzaion oraingoan dantzarako dohainak erakustea.

Hasten den guztiak amaiera duenez, hamaikagarren urtez Kukukaren antzerki eta dantza asteari ere iritsi zaio agur

esateko unea.

Aurretik, asteburuan lan ederrak ikusi ahal izan ziren kultur-etxean. Batetik, ostiralean gazteen "Hitza har deza-

gun" dantza garaikidea izan genuen eta helduek berriz "Monsterville" antzerkiarekin erakutsi zuten herri-antzerkia kalitate oso altukoa izan daitekeela, egiten den horri sentimendua jarritz gero.

Larunbatean, helduek dantzan egin eta gazteek euren antzezpenerako gaitasunak plazaratu zituzten "Minotaurora" obra, tekniko, konplikatu baina aldi berean eder batekin. Hurrengo urtean gehiago!



Esan daiteke, beraz, lasarte-oriatarrok historikoki leku honetan finkatuz joan garen bidaiariak garelara eta Lasarte-Oria gure iritsierako geltokia dela. Pentsatzeko, sentitzeko eta irizteko makina bat modu ontzi berean.



LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

guztiona

www.lasarte-oria.org